

EAJ-k aurkeztutako mozio alternatiboa

Bergarako bizitza soziala aldatzen doala begibistan dago eta harekin batera herrian iharduera ekonomikoaren banaketa ere aldatzen doa; herrien garapena beti suertatu dira halako mugimenduekin eta gaur egungo hiria horren ondorioa da. Hala eta guztiz, garapen hauek aztertu behar dira eta udalak orekak mantentzeko ahaleginak egin behar dira, kalteak eta onurak oreka batean gerta daitezen.

Zentzu honetan **hirigintza bi dokumentu funtsezkoak** landu, garatu eta onartu egin zituen Udal Batzarrak:

1.- PERCH- Erdi guneko historikoko erreabilitazioko plan berezia onartu zuen -2013ko otsailaren 25ean.

2.- Plan Orokorra onartu zuen 2009ko maiatzaren 25ean

Hirigintzako plangintza hauen hasieran giza hirigintzako azterketa egin zen eta kezka horiek eta helburuak jasotzen dira, kezka horiek eta erantzuteko bide bat zabaldu egiten da plangintza horietan. Horrela, aipatu behar da dokumentu horien helburuetariko bat “auzoa biziberritzeko” zen eta luzatu zitzaion herritarrei partaidetzako prozesuan.

Horretaz gain, PERCOK lagunduta **Bergarako Merkataritza Indaberritzeko plana** landu zen 2012an, eta horretan iharduera suspertzeko hainbat ildo estrategikoak nabarmentzen dira. Nahiz eta plan berezi hau iharduera ekonomikoari buruzko plana izan eta herri osorako izan, ez dago zalantzarik neurri handi batean erdigunea da honen erantzule, gure arlo komertziala horretan garatzen da eta.

Guzti hau kontuan hartuta eta abiapuntu moduan hartuta udalbatzak berriro hartzen du bere gain alde zaharra indarberritzeko konpromezua eta halako zeharkako atalak lantzea proposatzen du:

1.- Indarberritzeko planarekin jarraituz Bedelkar eta bere Bergarabizi egitasmoarekin lanean jarraitzea eta foro honetan azpimarratzea erdi guneko esparruak garrantzi berezia daukala.

2.- Indarberritzeko planarekin jarraituz, hurrengo pausuak emateko, kontuan hartuko da erdi gunek lehentasuna izan beharko duela; eta planak finkatzen dituen ildo estrategikoen artean erdi guneari dagokionak azpimarratu egingo direla.

3.- Indarberritzeko asmoarekin erabileren arteko uztarketak egiteko arautegia lantzeko konpromezua hartzen da, gure eraikuntzen erabilgarritasuna handitzeko eta era berean iharduera gehiago sortzeko aukera aprobetxatzeko.

4.- Erdi gunean ematen diren ekintzetan, bai udalak sustatutakoak eta baita pribatuek sustatutakoak, zeharkako tratamendu bat emateko bideak jorratuko direla konpromezua hartzen da.